



❖ GOBERNU BATZARRA
**Kultur
jardueretarako eta
auzoetako
jaietarako
dirulaguntzak**

Gobernu batzarra izango da gaur udaletxean. Bertan hitz egingo da kultur programa edo jardueretarako dirulaguntzak emateko oinarrietaz eta baita auzo elkarteek auzoetan jaiak antolatzeke dirulaguntzen oinarrietaz ere. Horrez gain, Udal Euskaltegiko lan egutegiaz, Udal organigramaz, eta Zaharren Egoitza ingurua urbanizatzeko ere ariko dira. Gaur arratsaldeko 18:00etan. ||

❖ AURREKONTUAK
**Kultura arloko
proposamenak
bilduko dira gaur**

2008 urteko Udal aurrekontuak osatzeko bilera izango da gaur. Gaurkoan kultura arloko proposamenak jasoko dira, horretarako deitutako Hezkuntza, Kultura eta Euskara batzordean. Arratsaldeko 18:30etan izango da, udaletxeko 2garren solairuan. Batzorde hau izango da sektoreka egin diren bileretan azkena. Hurrengo urratsa Ogasun batzordea deitzea izango da eta bertan jasotako proposamenen artean lehentasunak jarriko dira. ||

❖ LIBURUTEGIA
**Ipui kontalaria
gaur liburutegian**

Liburutegian Lur Korta ipui kontalaria izango da gaur. Arratsaldeko 17:30etan 3-4 urteko haurrentzat ariko da eta arratsaldeko 18:00etan 5-7 urte arteko haurrentzat kontatuko ditu ipuiak. Saio hau Hernaniko Udalak antolatzen du Eusko Jaurlaritzaren laguntzarekin. ||

Artisau Azokan 25 postu eta beira lantzen ikusteko aukera, igandean

Artisau azoka, goiz eta arratsalde izango da, eta taloak, ezitia, gazta, ogia eta musika ez dira faltako. Hernaniko 5 postu izango dira eta horietatik bat berria.

URTERO abenduko aurreneko igandean izaten den bezala, datorren igandean ospatuko da Hernanin Pablo Lasa Artisau Azoka, aurten 28garren urtez. Euskal Herriko bazter ezberdinetatik etorritako artisauak bilduko dira, Atsegindegiko aterpean, eskuz egindako lan ikusgarriak erakustera. Hernanitik ere ez da ordezkaririk faltako eta azken urteetan bezala bertan izango dira: Paco Muriana (makilak), Mainer Kalonje (egur taila), Kurlunka (marketeria) eta Anastasia Leunda (ezkurra eta artilea). Aurten Hernaniko postu berri bat ere izango da, Kinoa izenekoa, fimoarekin lanak egiten dituenak.

25 postu denetara

Denera 25 postu izango dira,



Anastasia Leunda izango da aurten ere artisau azokan.

eta urtero bezala denetariko lanak ikusteko aukera izango da. Kinoa hernaniarraz gain, aurten beste 7 postu berri izango dira: *El gato que rie*

(lanparak eta objektuak), Mia Rissanen (ehungintza), Lola Altolagirre (ehungintza), Jon Martinez (harri lanak), Jostugarri (patchwork lanak),

Kiara (beira) eta Arantxa Iparagirre (zeramika).

Musika, ikuskizuna eta jan edanak ez dira faltako

Artisau Azokaren bueltan, goiz eta arratsaldeko egitaraua antolatu dute. Batetik, bertatik bertara, beira figurak nola egiten dituzten ikusteko aukera izango da. Jatekoa ere ez da, faltako urtero bezala, eta taloak, pasta biologikoak, gazta, ezitia, opilak eta ogia izango dira.

Musika, Hernaniko Musika Eskola Publikoko trikitalarien eskutik eta Irungo Agirretxe anai albokariaren eskutik izango da.

Azoka goizeko 11:00etatik 14:30etara, eta arratsaldeko 17:00etatik 20:00etara izango da. ||



Santa Zeziliako

kontzertua izan zen larunbatean Sandiusterrin. Musikarekin egunaren bueltan antolatutako kontzertuak arrakasta izan zuen, eta Sandiusterrin jendez bete zen. Kantuz abesbatzak, Hernaniko eta inguruko txistulariek, metal boskoteak, dantzariak... ondo jantzitako emanaldia eskaini zuten. Jendeak txalo artean eskertu zuen musikariak kontzertua prestatzeko egindako ahalegina. Bukatzeko denak elkarrekin joan ziren afaltzera. ||

Amegar

Etxe Tresnak

ESKAI

FORMI
SUKALDEETAN

Ordaintzeko erraztasunak
- Finantziaketa -
- 12 hilabetetan interesik gabe -

Amegar



Txirrita kalea, 13-15

Tel.: 943 55 11 25 - Faxa: 943 55 16 03

BIKAIN
OKINDEGI TA GOZOTEGIA



Eguneroko ogia
beti bikain

Eziago poligonoa - Tel.: 943 550089
Elkano 12 - Tel.: 943 553142
Orkolaga 19 - Tel.: 943 331487
20120 Hernani

TELEFONOAK | Taxiak: 943 550093 | Udaltzaingoa: 943 248900 | DYA: 943 464622 | Autobusak: Herri barrukoa: 943 550548 - 625 700769, Garayar: 943 556658, Areizaga: 943 452708, Korroa Goizueta-Hernani: 948 514037 | Anbulatorioa: 943 006666 | Jokalari anonimoak: 943 331103 | Alkoholiko anonimoak: 943 331103
FARMAZIAK | Egunez: Etxebeste Elkano 2 - 943 552087 | Gauzez: Etxebeste Elkano 2 - 943 552087

EGURALDIA
GAUR Euria egingo du goizean, baina eguerditik aurrera zerua garbitzen joango da. Temperatura maximoa 9-12°C artean ibiliko da.
BIHAR Eguzkiak gozatzeko aukera izango dugu, batez ere eguerditik aurrera. Tenperaturak gora egingo du.

◆ ATLETISMOA-Donostiako maratoia



Maratoian parte hartutako zenbait hernaniar.

Asier Larrañagak Hernaniko markarik onena maratoian

Larrañagak 2:26:59ko denbora egin zuen eta iazko marka 2 minutu eta 8 segundu hobetu zuen.

ASIER Larrañaga hernaniarrak igandean pozik egoteko moduko marka lortu zuen Donostiako maratoian, izan ere, hernaniar batek inoiz maratoi batean lortutako markarik onena lortu zuen: 2:26:59. Asier Larrañagak sailkapen orokorrean 6garren postua lortu zuen. Korrikalariak iaz lortu zuen Hernaniko errekorra, 2:29:07 denborarekin, eta aurtan bere marka hautsi du. Adierazitakoaren arabera, korrikalaria iazko markaren bueltan ibiltzeko zuen helburua, "ez da inoiz jakiten, maratoia luzea da eta 30garren kilometrotik aurrera edozer gauza gerta daiteke, igandean dena ondo atera zen eta oso pozik nago". Idoia Esnaola, CD Hernaniko korrikalaria ere izan zen beste hernaniarren artean.

Lasterketa, bestalde, Marokoko Abdelhadi El Mouazizek irabazi zuen (2:12:45), eta aurreneko emakumea, Holandako Kristijna Loonen izan zen (02:47:12). ▀

◆ Hernaniarren sailkapena

Sailkapen orokorra	Izen abizenak	Denbora
1	6 Asier Larrañaga	2:26:59
2	96 Juan Luis Azpiroz	2:44:50
3	186 Jose Ramon Ruiz	2:51:37
4	205 Ibon Iriondo	2:53:02
5	306 Xabier Salillas	2:56:15
6	340 Iñaki Eizmendi	2:57:02
7	794 Francisco Jabier Galan	3:12:20
8	1.207 Lander Muñoz	3:23:59
9	1.195 Sergio Uzkudun	3:25:10
10	1.332 Martxel Rodrigo	3:28:12
11	1.408 Xabat Aizpiolea	3:28:29
12	1.682 Fernando Etxezarreta	3:38:31
13	1.705 Ruben Paredes	3:39:27
14	1.803 Luis Maria Sagarna	3:46:00
15	1.855 Julian Mena	3:48:09
16	1.889 Jole Luis Caballos	3:48:16
17	2.074 Idoia Esnaola	3:59:38

◆ ERLIJIOA

Ama Mirariaren Hirurrena

Ama Mirariaren Hirurrena ari dira ospatzen egun hauetan San Joan Bataiatzailearen parrokiari. Gaur izango dute azken eguna. Goizeko 18:40etan Errosario Santua izango da, eta 19:00etan, Eukaristia. Aita Juan Jose Muniain Apaizarekin eskutik. ▀

◆ BERDINTASUNA

Hitzaldia eta tailerrak gaur

Igandean, Emakumeenganako Indarkeriaren Kontrako Nazioarteko Eguna izan zen, eta egun

horren bueltan emakumeenganako indarkeria salatzen zenbait ekintza antolatu dira. Bihar gai honen inguruko heziketaren txanda izango da. Izan ere, Langile ikastolan tratatu onen inguruko tailerrean parte hartuko dute DBHko 3 eta 4garren mailako ikasleek, goizeko 11:00etan eta goizeko 08:30etan, hurrenez hurren. Eguerdiko 14:30etan, genero indarkeriaren prebentzioari buruzko hitzaldia izango da Langile ikastolako irakasleentzat. Arratsaldeko 20:00etan, *Accion Afirmartiba*-ko kide den Belen Gonzalezek hitzaldia emango du, *Estrategias para hacer frente a la violencia de genero* gaiaren bueltan. Hitzaldia Biterin izango da. ▀

◆ INAUTERIAK

Kartel lehiaketa

Inauteriak iragartzeko kartel lehiaketa antolatu du Udalak, Lanak, abenduaren 3a, astelehena aurretik entregatu behar dira, Biteri kultur etxean, arratsaldeko 18:00-20:00 bitartean. ▀

Elur Txoriko mus txapelketa

Jakinarazi dutenez, abenduaren 10ean hasiko da Elur Txori elkar-terko banakako eta parejetako mus txapelketa. ▀

◆ FUTBOLIN TXAPELKETA

Gaur Garin tabernan jokatu diren partidak

Gaur Garin tabernako futbolin txapelketan honako partidak jokatu dira: Perez-Ekhi/Ekaitz-Izaskun; Xabi-Rubio/Zesar-Itziar, Txato-Insumiso/Primoak; David-Asier/Perez-Ekhi; Maider-Aloña/Alex-Gaizka; eta Julen-Ugaitz/Alex-Gaizka. ▀

◆ MUS TXAPELKETA

Elkarte arteko mus txapelketako final laurdenak gaur, Txantxangorri

Elkarte arteko mus txapelketako final laurdenetako partidak jokatuko dira gaur, Txantxangorri. Honako partidak jokatuko dira gaurkoan: Goiz Eguzki A-Karobi A, Sagastialde A-Elizatxo A, Elizatxo B-Sagastialde B, eta Txantxangorri B-Peña Otaño B. ▀

◆ IRAGARKI MERKEAK ◆

Lokal bat erosi nahi dugu, 3 metroko altuera duena gutxienez. Hernanin ahal bada, edo inguruan. Deitu: 685 77 43 42

Irune Estetika. Depilazioa, masajeak... Eskaintza: Ordubeteko masajea edo kutis garbiketa eginez gero, anken depilazioa opari. Kardaberaz 51, behe. Tel. 943 55 71 13 - 686 50 44 23

Hernaniko taberna batean tabernaria behar dugu asteburuetarako. Deitu 635 745 503

Galdutakoak. Koilarea galdu da Elkano, Orkolaga edo Latsunbeberri inguruan. Izkina urrezkoa duen altzairuzko txapa obalatu da: 'J.M.' letrak ditu. Deitu: 943 550194

Xanti Masajista. Kirol masajea, TP de Cyriax, kiropraxia, osteopatia xamurra, bioaktibadore neurologikoa, kinesiologia, reflexologia. Deitu: 943 33 07 35 (Lizeaga, 2 P-1 B).

Argia zentroa. Masajea, akupuntura, diafreoterapia, kiropraxia, errelejo ajustea eta bertebrala, kromoterapia, drenaje linfatikoa... Antziola 39 (Mendi mendian, 2). 943 55 76 76

Argia zentroa. Balneoterapia-spa, gorputz eta aurpegi tratamenduak, oinen eta eskuen estetika. Eskatu ezazu programa informatiboa. Antziola 39 (Mendi mendian, 2). 943 55 76 76

Gimnasia Kontziente bateratzailea. Ariketak hurrunkera naturalean, arnasketa, erlaxazioa, estresa nola saihestu eta nola tratatu... SASOIKO (Marieluts 4 behe). 943 33 11 83 - 656 72 14 92 (Josune Goikoetxea)

Gimnasia Oreaktua HAURDUNENTZAT. Haurdunaldia eta erditzea ondo garatzeko. Haurraren garapena osasuntsua eta zoriotsua izateko. SASOIKO. Deitu 943 33 11 83 - 656 7214 92 (Josune Goikoetxea)

Yolanda estetika zentrua. Argi zapaldu bidezko depilazioa (azken berrikuntza), mantxa eta Kuperros. Haserako eskaintza. Froga dohainik. Atzieta 2, behe. Tel. 943 55 32 78.

Iniño Royo Masajista. Masajea, naturopatia, akupuntura, ajuste neurologiko eta bertebrala, reflexologia, auriculoterapia,... 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)

MARITXU URBUZOLA ETA JERUX UGALDE

1957 · 11 · 27

2007 · 11 · 27

ZORIONAK BIHOTZETIK UNE POZGARRI HONETAN, EGUN EDEBERTA IGARO ZUEN URBE EZTAIETAN